

**ARRATE EGOITZAKO IKASLEEN PINTURAK ETA ESKULANAK**  
**Egunak:** 11-14  
**Ordutegia:** Osteguna eta ostirala 17:00-20:00 eta Larunbata eta igandea 09:00-13:00  
**Lekua:** Sutegiko erakusketa aretoa

**AISIALDIKO BEGIRALE IKASTAROA USURBILEN**  
 Usurbilgo Udalak, Usurbilgo Kirol taldeekin elkarlanean, Aisialdioko Begirale Ikastaroa antolatuta du.  
 Ikastaroa udan izango da eta Urtxintxa begirale eskolak emango du.  
**Izen-emateko epea:** maiatzaren 19a arte (Kiroldegian). Plaza kopurua mugatua izango da.  
**Informazio gehiagorako:** Oiaro Kiroldegian 943 372498

**EUSKARA, GENEROA, JATORRIA ETA KLASEA GURUTZATZEN DIREN LEKUA: UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAREN BARRUAN JAKIN JARDUNALDIK USURBILEN**  
**Noiz:** Uztailak 13 eta 14n  
 UEUren 45. Udako Ikastaroetan izena emateko aukera maiatzaren 22an irekiko da. 7 jardunaldi eta 28 ikastaro, askotariko jakintza arlotakoak, espezializatuak zein dibulgaziozkoak. Interesa daukan edonori irekiak.  
 Sartu web gunean eta kuxkuxeatu nahi beste, ziur zure gustuko ikastaroren bat topatuko duzula: [www.ueu.es](http://www.ueu.es)  
 Gogoratu, uztailaren 13 eta 14a, Jakin-ekin batera jardunaldi interesgarri bat izango dugula Usurbilen.

UDAL LIBURUTEGIA	
Goizez, 10:00-13:00	2 3 4 5
Astegunetan, 10:00-13:00 eta 16:00-19:30	8 9 10 11 12
Itxita	15 16 17 18 19
Goizez	22 23 24 25 26
	29 30 31

Sutegi Eraikina · Irazu kalea, 14 - 20170 Usurbil  
 Tel.: 943 360 692 · [www.liburutegiak.euskadi.eus/katalogobateratua](http://www.liburutegiak.euskadi.eus/katalogobateratua)

### KZ-GUNEKO IKASTAROAK

**IKASTARO ETA MINTEGIAK**

<b>IRUDIA</b> Gimp argazki digitala 02-12 09:00-11:00 (20 ordu)	<b>SOFTWARE LIBREA</b> Libre office. Aurkezpenak sortu eta ondokoak harritu (4 ordu) 15-16 11:00-13:00
<b>OINARRIZKO INTERNET</b> Ordenadorea, teklatura eta xagua erabiltzen ikasi (6 ordu) 15-17 09:00-11:00	<b>Nabigatzen eta posta elektronikoa bidaltzen ikasi (20 ordu)</b> 18-31 09:00-11:00

**URRUNEKO FORMAZIOA (Gaztelaniaz)**  
 Maiatzan Kzgunea: goizez 09:00-13:00  
 Kale Nagusia 37. · 20170 Usurbil · Tel.: 943 02 36 84  
[tutor.usurbil@kzgunea.net](mailto:tutor.usurbil@kzgunea.net) · [www.kzgunea.eus](http://www.kzgunea.eus)

**UDAJOLAS UDALEKU IREKIETAN IZEN EMATEKO EPEA ZABALIK**  
**Antolatzaileak:** Noaua! eta Usurbilgo Udala  
 Udajolasek udako aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz pasatzeko aukera eskaintzen du. Usurbilen errolatutako 4-12 urte bitarteko haur eta gazteei zuzendua dago. Uztailaren 4an hasi eta 29an amaituko da. Ordutegi hau izango du: 09:30-13:30  
**Izen emateko epea:** maiatzaren 2tik 8ra (biak barne)  
 Noaua!ko egoitzan. 10:00-11:00 eta 16:00-18:00

**SANTIXABELETAKO EGITARAUAREN DISEINUA EGITEKO LEHIAKETA**  
 Usurbilgo Udalak, Jai Batzordearekin elkarlanean, Santixabel jaietako egitarauaren diseinua egiteko lehiaketa martxan jarri du. Lanak maiatzaren 22a bitartean aurkezteko Usurbilgo Udaleko erregistroan.  
**Oinarriak:** eskuratzeko: <http://kultura.usurbil.eus/> helbidean edo 943 371999 telefonora deituta.

**NORK BOTAKO DU SANTIXABELETAKO TXUPINAZOA? PROPOSAMENAK JASOTZEKO EPEA ZABALIK**  
 Santixabeletako Jai Batzordeak "Nork botako du txupinazoa?" ekingiza jarri du martxan. Santixabel jaien hasiera ekitaldian nor omendu erabakitzeko herritarren proposamenak jaso nahi dira bertan. Proposamenak maiatzaren 22a baino lehenago helarazi behar dira [kultura@usurbil.eus](mailto:kultura@usurbil.eus) helbidera. Bestela, Sutegi liburutegian, Oiaro Kiroldegian edo Potxoenea Kultur Etxean jarri diren gutunontzietara ere zuzenean ekar daitezke. Nahikoa da orri batean proposamenaren berri ematea.

**ERAKUSKETA**  
 Sutegi erakusketa aretoan **ARRATE EGOITZAKO IKASLEEN PINTURAK ETA ESKULANAK** **11-14**

**LEHIAKETA ETA DEIALDIAK**

Noaua!ko egoitzan	UDAJOLAS UDALEKU IREKIETAN IZEN EMATEKO EPEA ZABALIK	<b>2-8</b>
Udal Erregistroan	SANTIXABELETAKO EGITARAU LEHIAKETA	<b>22</b>
Sutegi liburutegian, Potxoenea edo Oiaro kiroldegian. <a href="mailto:kultura@usurbil.eus">kultura@usurbil.eus</a>	NORK BOTAKO DU SANTIXABELETAKO TXUPINAZOA? PROPOSAMENAK JASOTZEKO EPEA	<b>22</b>

*Zuen deialdiak zabalteko, bidali hilaren 15a baino lehen [kultura@usurbil.eus](mailto:kultura@usurbil.eus) helbidera.*

**Usurbilgo Udala**  
 Soziokultura Saila  
 Tel. 943 371 999  
[kultura@usurbil.eus](mailto:kultura@usurbil.eus)  
[www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus)

**Usurbil Kultura**  
 Herritarren tresna  
 Usurbilgo Kultura zabaltzeko  
[kultura-usurbil.eus](http://kultura-usurbil.eus)

### KULTUR AGENDA 2017ko maiatza

1	Asteartea 17:00 Zubietako Kaxkapen	AMELIA BARQUIN: HEZKUNTZA ETA GENEROA	<b>2</b>
1	Ostirala 18:30 Txokoaldeko tren geltokian	TXTXTX (TXOKOALDEKO TXALAPARTA TXOKO)REN AURKEZPENEA	<b>5</b>
1	Larunbata 11:00 Frontoian	PRODUKTU SOLIDARIOEN BILKETA EGUNA	<b>6</b>
1	Larunbata 12:30 Potxoenean	PRODUKTU SOLIDARIOEN BILKETA EGUNA: ANTZERKIA	<b>6</b>
1	Larunbata 19:30 Mikel Laboa plazan	TXALAPARTARIAK ETA "ESKU HARRIAK, OTEIZAREN (H)ARIA"	<b>6</b>
1	Larunbata 22:00 Sutegin	"ITZAL ZAUNKA" KONZERTU IRUDIKATUA	<b>6</b>
1	Igandea Egunean zehar	2. ERABAKI FEST JAIALDIA	<b>7</b>
1	Igandea 11:00 Iruin Sagardotegitik	5. SAGASTIAK LORETAN: BERTSO-IBILALDIA ETA BAZKARIA	<b>7</b>
1	Igandea 07:30 Oiaro kiroldegitik	MENDI IBILALDIA	<b>7</b>
1	Igandea 11:00 Askatasuna plazan	BIZI KALEA	<b>7</b>
1	Asteartea Donostiako Tabakalera eraikinean	5. SAGASTIAK LORETAN: "SEED JOURNEY"	<b>9</b>
1	Asteartea 14:30 Zubietako kaxkapen	ELENA GIMENEZ: HAUR SEXUALITATEAREN BIDE LAGUNA	<b>9</b>
1	Asteazkena Hendaiaiko Domaine d'Abbadien	5. SAGASTIAK LORETAN: "SEED JOURNEY"	<b>10</b>
1	Larunbata 00:00 Dema plazan	KEN ZAZPIREN KONZERTUA	<b>13</b>
1	Larunbata-Igandea 8:30 Oiaro kiroldegian	MENDI IRTEERA: HERRI URRATS: BI IRTEERA	<b>13-14</b>
1	Astelehena Egun osoan zehar	SAN IXIDRO EGUNA	<b>15</b>
1	Asteartea 18:00 Udal liburutegian	TELMOREN ABENTURAK	<b>16</b>
1	Asteazkena 17:00 Udarregi ikastolan	HEZKUNTZA EMOZIONALA HITZALDIA	<b>17</b>
1	Asteazkena 18:00 Donostiako Cristina enea	5. SAGASTIAK LORETAN: "SEED JOURNEY"	<b>17</b>
1	Larunbata 22:00 Sutegin	"JAINKO BASATIA" ANTZEZLANA	<b>20</b>
1	Igandea Egun osoan jaia	XXXVI. SAGARDO EGUNA	<b>21</b>
1	Asteartea-Ostirala Zubietan	ZUBIETAKO UDABERRI FESTA	<b>23-26</b>
1	Ostirala 17:30 Bihurri Ludotekan	CLOWN SAIOA LUDOTEKAN	<b>26</b>
1	Larunbata 12:00 Sutegin	MUXURBILGO IKASLEEN EMANALDIA	<b>27</b>
1	Larunbata 19:00 Mikel Laboa Plazan	KANTU-JIRA KALEZ KALE	<b>27</b>

### IKASTAROAK

Larunbatak	SAGARRONDOTIK SAGARDORA IKASTAROA	<b>20</b>
Ikastaroa Udan	AISIALDIKO BEGIRALE IKASTAROA USURBILEN IZEN EMATEA MAIATZAN	<b>19</b>
Ikastaroa Uztailak 13-14	EUSKARA, GENEROA, JATORRIA ETA KLASEA GURUTZATZEN DIREN LEKUA: UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAREN BARRUAN JAKIN JARDUNALDIK. IZEN EMATEA MAIATZAN	<b>22</b> tik aurrera

**XXXVI. Sagardo Eguna**  
**Antolatzailea:** Sagardo egunaren lagunak.  
**Goizean zehar,** frontoian herriko baserriarrak eta beste sagardogileak izango dira, Dema plazan Gipuzkoako sagardogileen elkartereko postuak jarriko dira eta Askatasuna plazan Eusko Labelean sartuta dauden sagardoak dastatzeko aukera izango da.  
**11:30** Hasiera ekitaldia Aizpurua autobusen eskutik  
**18:00-21:00** "Elektro Patxaranga" kaleetan zehar.

### 23-26 Udaberri Festa 2017 Zubietan

**Antolatzailea:** Zubietako eskola txikiko guraso elkarteak

<b>Maiatzak 23, asteartea:</b> 16:30 Eskolako haurren marrazki erakusketa. 17:00 Ipun kontaketa. 18:00 Globo gerra eta apar festa. <b>Maiatzak 24, asteazkena:</b> 17:00 Eskulanak: Txapak, gatza potoa, kareta, aurpegiak pintatzea, kafe kapsulekin eskulanak (koilareak, brotreak, diademak), papiroflexia ... 19:00 Buruhandiak.	<b>Maiatzak 25, osteguna:</b> 16:30 Merendola. 17:00 Puzgarriak eta trebetasun frogak. <b>Maiatzak 26, ostirala</b> 17:00 Zubietako antzerki taldeko ikuskizuna. 18:00 Buruhandiak eta maskuri zozketa. 19:00 Afari-merienda et ondoren disko festa eta euskal dantzak.
--	---

**Clown saioa: Portaera egokia hondartzan**  
 Jarduera honen helburua, 3-4-5 urteko umei beren eta gainerako erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko hondartzan izan behar duten portaera zuzena transmititzea da, beti ingurumenaren babesa bermatuko duten portaerak izango direlarik

# 27

Larunbata 12:00 Sutegiko Auditoriumean

**Muxurbilgo ikasleen emanaldia**  
**Antolatzailea:** Muxurbil taldea. **Sarrera:** Doan gonbidapenekin.  
 Kurtso amaierako emanaldia.

**Kantu-jira kalez kale**  
**Antolatzailea:** Usurbilgo Kantu Taldea.  
**Nori zuzendua:** Herritar orok parte har dezake. Har ezazue liburuxka eta zatozte elkarrekin kantatzera.

# 2017ko maiatza



**ITZAL ZAUNKA**  
 Maiatzaren 6an



**JAINKO BASATIA**  
 Maiatzaren 20an

USURBILGO KULTUR AGENDA

